

SUSTAPENENKO SALMENTA

1 – SUSTAPENENKO SALMENTEN KONTZEPTUA

Sustapeneko salmentak izango dira produktu edo zerbitzu jakin batzuen salmenta ezagutarazi edo bultzatzea helburutzat dutenak erosleei abantailak eskainiz, besteak beste deskontu, opari, sari edo beste edozein pizgarrirekin.

Sustapeneko salmentarako produktuak ezin daitezke hondatuta egon ezta prezio normal batean eskaintzen direnekoak baino kalitate gutxiagokoak izan.

Sustapeneko salmentaren barruan eskaintzen diren artikuluen erdia baino gutxiago aurkitzen badugu, orduan sustapeneko salmenta ezin daiteke neurri orokor bat bezala iragarri. Ukituta dauden artikulua eta sektoreak iragarri beharko dira.

Engainagarri izango da opari edo sariekin egiten den eskaintza baldin eta kontsumitzaileak modu erreal batean jasotzen ez badu egin zen eskaintzaz zentzuz espero zezakeena.

2 – BETEBEHAR GARRANTZITSUENAK

EPEARI DAGOKIONEZ:

- ❖ Sustapenaren indarraldia adierazi beharko da.

ETIKETARI DAGOKIONEZ:

- ❖ Gaiak modu zuzen batean etiketatu beharko dira eta haien osagaiak xehetasunez adierazi beharko dira.
- ❖ Saltzekoak diren artikulua prezio beherapenarekin agertzen badira, argitasunez agertu behar dira, artikulua bakoitzean, lehengo prezioa eta orain eskatzen dena, alegia murriztutako prezioa.
- ❖ Hala ere, artikulua multzo baten portzentajezko murrizpena baldin bada, iragarpen generikoarekin aski izango da eta ez da beharrezkoa artikulua bakoitzean horrela agertzea.

Gainera kontuan hartu behar da ondoko hau:

- ❖ Erakusleihoan erakusten diren artikuluen prezioa kanpotik ikusgarri izan behar dira.
- ❖ Betebehar honetatik kanpo gelditzen dira: bitxigintza, larrugintza eta 601 euroko balioa baino handiagoa duten produktuak.

JAKINARAZPENARI DAGOKIONEZ:

- ❖ Salmenta-modu hau egiteko ez da beharrezkoa izango Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Sailari jakinarazpena egitea.

SALMENTEN KUDEAKETA / BESTE BETEBEHARREI DAGOKIENEZ:

- ❖ Establezimenduak produktu txarren itzultzea onartu beharko du hauek akastunak direnean.
- ❖ Saltzaileak itxaron daitekeen eskaera hornitzeko adina izakin izan beharko du, eta publizitateak ez du eskainitako produktuaren izakinen baliabideetatik gora iraungo.
- ❖ Modu ikusgarri batean erakusten ez bada, dendetan eskainitako ordainbideak, txartelak edo urte osoan dauden itzultze-politikak sustapenetan indarrean jarraituko dute.
- ❖ Sustapen-opariak eta pizgarriak Autonomia Erkidego bakoitzak zehaztuko duen epean erosleei eman beharko zaizkie, 3 hilabeteko epean gehienez, erosleak eskatutako betekizunak betetzen dituen unetatik.

Eskaintza produktuen ontzietan egin bada, orduan erosleak 3 hilabete izango ditu eskainitako saria jasotzeko sustapena bukatu zenetik.

Eskainitako sariak bilduma edo multzo baten barruan egotekotan, eskaintzaren enpresa arduradunak sari hauek beste batzuegatik aldatzeko betebeharra izango du. Hau ez da beteko eskaintza publikoan beste prozedura ezarri baldin bada bildumaren piezak lortzeko.

- ❖ Eskaintza multzoen debekua. Bi edo mota gehiagoko artikulua multzoan eskaintzea debekatuta dago salbuespen hauekin:
 - Artikuluen artean erlazio funtzionala existitzen bada.
 - Artikulu batzuk minimo jakin batean baino kantitate handiagoan saltzea merkataritza jarduera arrunta denean.
 - Aldi berean, artikulua euren prezio arruntetan eta aparte erosteko aukera eskaintzen bada.
 - Sortak edo elkarrekin aurkeztutako produktu taldeak direnean estetika arrazoiengatik edo opariak egiteko erabiltzen direlako.

3 – ARAUTEGI ERREGULATZAILEA

Estatuaren legea: [7/1996 Legea, 1996ko urtarrilaren 15koa](#), Xehekako Merkataritzaren Antolamenduarena (18, 19, 20, 21, 27, 33 eta 34 artikulua)

Lege autonomikoa: [7/1994 Legea, maiatzaren 27koa](#), Merkataritza Jarduerari buruzkoa (28 artikulua).